Punta Galea Tx E
Illetas 10, bajo,
48991, Getxo, Bizkaia
+34 94 430 76 31

Kide eta lagun agurgarriak:

Gobernuak ezarritako alarma-egoera dela-eta, gizartearen gehiengoak, oinarrizko sektoretan aritzen direnak salbu, etxe barruan geratu behar gara gure gustuko kirola ezin eginik.

UCIk adierazi duenez lasterketa guztiak bertan behera geratzen dira ekainak 1era arte, eta ziur aski osaketa mailako lasterketen kasuan epea luzeagoa izango da.

Egungo egoera dela-eta, gure klubaren inguruan dauden zalantzak handiak dira, baita gutako bakoitzaren egoeran ere. Guztiok gastu finko batzuk ditugu, aurrera ateratzen jarraitu behar ditugunak, eta gure klubaren kasuan babesle pribatuen galera batzuen aukera eta helduko diren dirulaguntza publikoen murrizketa.

Mezu honen bidez helarazi nahi dizkizuegu gure elkartearen eta antolakuntzen inguruko azkenengo berriak:

- Gure Klasika zikloturista, apirilaren amairean ospatzekoa zena, atzeratuta geratu da, aurkitzeko oso zaila izango den data batean.
- Getxon apirilaren 25ean ospatzekoa zen kadete mailako lasterketa bertan behera utzi behar izan dugu.
- Urdulizko Taldekako Erlojupekoa, kadete zein junior mailakoa, irailaren 19ra atzeratu da.

Hasiera batean, antolatuta genituen gainerako lasterketen datak mantentzen dira, egungo egoerak ekarriko digun zain.

- Abuztuaren 2an - Getxoko Zirkuitoaren 75. edizioa - Otxoa anaien oroimenezkoa. ELITE-UCI
- Irailaren 8an, Elite eta 23 azpiko mailako lasterketa, Urdulizen.

Punta Galea Tx.E osatzen dugun familia guztia eta gure ondokoak osasuntsu egon gaitezela espero dugu, gaixotasun ikarragari honen eragina jasan gabe.

Jaso ezazue besarkada estu bat, laster egoera arrunt batean elkartuko garelakoan:

PUNTA GALEA
TXIRRINDULARI ELKARTEA
ILLETA, 10 Bajo
48991 GETXO (Bizkaia)
(+34) 94.430.76.31

Mikel Guinea

Presidente

CIF: G48219349